



## **AMARA**

### **BILERAREN LABURPENA**

<b>Eguna</b>	2015/11/24
<b>Orduetgia</b>	19:00 – 21:00
<b>Tokia</b>	AmaraBai Elkarteren Egoitza



#### **DEITUTAKOAK**

##### **Amarabai AE**

**Hirigintza, Bide Publikoak eta Herri  
Partaidetza**  
**Udal ordezkari politiko eta teknikoak**

#### **BERTARATUAK**

##### **AmaraBai AE**

Lehendakaria  
Elkarteko kide bat  
Auzoko 3 bizi lagun

##### **Udaleko Partaideak**

Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia  
Juan Ortiz de Zarate, Zuzendaria  
Jurdana Arruabarrena, Teknikaria  
Iñaki Otamendi, Teknikaria

## Helburua:

**Hiri eta Azpiegitura eta Zerbitzuen inguruan beharrak jaso eta hobekuntza proposamena jasotzea, hauen jarraipena egitea eta gai honekin zerikusia duten inguruko informazioa ematea.**

**Udala eta Auzo Elkarteen arteko gertutasunezko harremanak lantzea eta lan kolektiboa sustatzea.**

### Landutako gaiak

1. Auzoaren diagnostikoa
2. Easo plaza
3. Arroka
4. San Roke
5. Amara kalea
6. Moraza kalea
7. Auzolab 2016
8. Beste gai batzuk

### Gaien azterketa

#### 1. 1. Auzoaren diagnostikoa

AmaraBairen iritziz, hiri mantentze eta zerbitzuei buruzko gai puntualak mahai gainean jartzeaz gain, beharrezkoa da Udalaren eta auzoaren artean diagnostiko bat egitea modu partekatuan.

Uste dute Amara garrantzi handiko zenbait jardueren epizentroa dela eta auzoan eragina izango dutela.

- San Bartolome
- Balizko zentro komertziala
- Bainuetxea
- Metroa egiteko proiektua
- Arte Ederren eraikina
- Polizia Nazionalaren kuartela

Udalari eskatzen diote Amarako bizilagunen interesak babesteko eta parte hartzeko espazio eta bide iraunkorrak zabaltzeko, gai orokorrei heltzeko, auzoari gai horietako bakoitzaren berri ematek hasita, eta herritarrek aukera izatea beren ikuspegia azaltzeko, bai kirol, kultur... zerbitzu eta ekipamenduen egungo egoerari zein aurreikuspenei dagokienez. Gaien garrantziaz eta konplexutasunaz jabetzen dira eta iruditzen zaie Udalak eta auzoak aliatuak izan behar dutela.

San Bartolomeri dagokionez, AmaraBaik uste du aukera baliatu behar dela ongi burutzeko auzoa hogeitaz baldintzatuta eduki duen proiektua. Zurrumurruak dabilta eta zurrumurruek ziurgabetasuna eragiten dute.

*Zinegotziak azaldu du Udalak asmoa duela informazioa emateko prozesu bakoitzaren fase bakoitzean, eta horretarako beharrezkoa izango dela auzo elkarteekin eta herritarrekin komunikatzeko kanalak hobetzea eta udal sailen arteko barne lana hobetzea. Hurrengo bilera-sortarako dagozkien zinegotzien eta sailen inplikazioa lortzen saiatuko da.*

## **2. Easo plaza**

AmarBaik planteatzen du plazaren gaiari osotasunetik heldu behar zaiola: Etorkizuneko plaza bat politagoa, gizatiarra, autorik gabea, zuhaitz gehiagorekin...

Ikuspegi oso horretatik, beste elementu batzuen artean, bi plazak, sarrerak eta irteerak, aparkalekuko sarbidea eta abar batzea aztertu beharko litzateke.

AmaraBaik ez du diseinu perfekturik; uste du gogoetari ekin behar zaiola dendariak, ostalariak, auzotarrak... aintzat hartuta.

*Zinegotziak azaldu du analisi-prozesu bat abian dela espazio publikoak estaltzeko premiei buruz.*

AmaraBairen ustetan, estaltzearena hobekuntza puntualtzat ikusi zen iraganean, baina analisi globalaren beharra azpimarratu dute berriro.

*Zinegotziak uste du plazaren etorkizuna lotuta egongo dela Easo plazako etorkizuneko geltokiarekin ere.*

AmaraBaik planteatu du ziurgabetasun-egoera saihestu behar dela.

Plazaren egungo egoerari buruz

Bainuetxea habetuta dago eta udaleko langileek haren egoera eta osasungarritasuna berraztertuko dituzte. Gasolina-deposituaren egoera aztertzeke dago.

AmaraBairi arriskutsua iruditzen zaio aparkalekuaren irteera.

Easo plazako bi guneak banatzen dituen Amara kalearen zatian sakanguneak/gainbide bat jartzeko aukerari buruz ere galdetu du.



## **3. Arroka**

AmarBaik eskatu du oinezkoentzat jartzen amaitzea, lurpeko edukiontzia kentzea, arrapala bat egitea

eskailerak erabili ezin dituztenek buelta osoa eman behar ez izateko... eta proposatu dute Marianistetatik hondartzarako igarobidea berreskuratzea.

*Udal ordezkariak jakinarazi dute Arroka plaza hartu gabe dagoela, eta Udalak arduradunei eskatuko diela mantentze-lanak zabaltzea eta jardinerak barne hartzea.*

Pilotalekuari dagokionez, Amara Kirol Elkarteak eskatu du garbitzen jarraitzeko, ez eraisteko eta konpontzeko.

#### **4. San Roke**

AmaraBaik eskatu du eskailerak garbitzeko 17 zenbakiko portalaren inguruan.

Atarietarako baranda batzuk ez daude behar bezalako egoeran.

*Udal ordezkariak zehaztasuna eskatu dute; izan ere, jakin behar da zein diren udalaren ardurapekoak eta zein diren pribatuak, kasu horretan ardura jabekideena baita.*

Auzotar batzuek eskatu dute eskailera mekanikoen ordutegia zabaltzeko astean zehar, baina batez ere, asteburuetan. Bere garaian eskaera bat sartu zen erregistrotik gai horrekin lotuta.

#### **5. Amara kalea**

Goiko aldean, azken biribilgunean, granitozko elementu batzuk daude oso altuera txikian eta distantzia larri-larria da, auzotar batzuen iritziz.

33. zenbakiaren parean zuhaitz bat dago kimatu beharra etxeen kontra ez joateko. Pinu bat ere badago traba egiten duena leihoak irekitzeko.

Pilotalekuaren aurrean dagoen saretoa buxatu egiten da sarri eta ez du menditik datorren ura irensten.

#### **6. Moraza kalea**

AmaraBaik eskatu du oinezkoentzat jartzeko aukera aztertzeko.

#### **7. Auzolab 2016**

AmaraBaik Auzolabean parte hartu du eta positiboa dela iruditzen zaio; prozesu horri segida ematea eskatu du.

Informazio guztia hemen dago:

<http://dss2016.eu/eu/dss2016eu/bizitza/item/408-amarabai-taldeak-garatu-duen-auzolab-a-bukatuta-dago>

#### **8. Beste gai batzuk**

- Edukiontzia: adinekoentzat egokitutako edukiontzia behar dira, eta konposta egitea bultzatzea.
- Espaloietako hobekuntzak nabaritzen dira, baina beste zati batzuk egitea falta da.
- Amara Berri ikastetxetik gertuko kale-argi batzuk zuhaitzek tapatzen dituzte.
- Kexak jaso dira madariondo bat dela eta; udalak garbitu ditu jada inguruak.*
- Amara kaleko pilotalekua: Amara Kirol Elkarteak prest dago espazio hori kudeatzeko eta proposatu du erabilera komunitarioa berraztertzea: elkartei ez kobratzea eta gogoeta egitea harmailei, bainuei, aldagelei... buruz.
- Zakurrak Basoerdin: istiluak izan dira zakurrak sueltu dabilzala eta. Auzotarrek txakurrekin ibiltzeko araudia

ez dutela ezagutzen diote.

*Animaliak edukitzeari buruzko informazioa webgunean dago:*

[https://www.donostia.eus/info/ciudadano/sanidad\\_animales.nsf/fwHome?ReadForm&idioma=eus&id=A463738448313](https://www.donostia.eus/info/ciudadano/sanidad_animales.nsf/fwHome?ReadForm&idioma=eus&id=A463738448313)

Han bertan ere informatzea proposatu dute auzotarrek.

